


Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

ARGAZKIAK ETA TESTUA:
MUSKILDA TELLABIDE ETA ASIER AGIRRESAROBÉ

Aurreko zenbakian Pasai Donibanetik Hondarribira itsasertzean doan bidearen lehen zatia azaldu genizuen, honakoan bigarrenaren berri emango dizuegu. Lehen erdia basatia, nekeza baina aldi berean ederra zela genion; bigarrena erosoagoa da, leuna eta ibilterraza. Baina aurrekoa bezain zoragarria. Giza eragina nabarmenagoa da, pista eta bide asko mazelan behera itsasora hurbiltzen dira. Harritzko hondartzak, lurmuturrak, kalak eta belardi zabalak igaroko dituzue.



Jaizkibelgo itsasertz atsegina

Itsasertzeko ibilbide osoa egin nahi izanez gero, lehen erdiaren bukaerako puntura itzuli beharra duzue; Erentzingo amildegi gainera. Jaitsiera baina, zorabiagarri eta arriskutsu samarra izanik, Erentzingo portura zuzenean jaisten den pistatik behera abiatu zaitzekete, eta behin iritsitakoan itsasertzetik jarraitu. Nolanahi ere, bi kasuetan, Guadalupeko ermitatik Jaizkibelgo mendatera igotzen den errepidean gora zoaztela, eskuinera abiatzen den basa-pista hartu behar duzue (310 m). Erentzingo basa-pista ipintzen du eta autoek sarrera debekatuta dute. Pista horri jarraitu eta bidegurutze batera ailegatuko zarete (225 m). Eskuinera hartu gabe, aurrera eta behera egiten duenetik joz gero, Ixiruko kuarter zaharrean amaituko duzue, eta izen bereko mendia eskuinetik inguratuta Erentzingo portuan (5 m). Bidegurutzearan aurrera hartuz gero, mendi bizkar bat gaingitu eta Leruetako txabola inguruko bidegurutzera iritsiko zarete (215 m). Hor, mendi bizkarrean behera doana hartu, pista hasieran, zidorra ondoren.

Erentzingo portua eta zabala


Jaizkibelgo kostaldeko azken oztopoa da Erentzingo portura amiltzen den horma. Gaundiezi-na dirudien arren, giltzarria den punta topatuz gero bada behe-raino jaisteko aukera. Amildegia- ren ertzetik zoaztela, irtenune bat topatuko duzue, pintura horiz egindako gezi lausoa duena. Hori duzue bidea! Alambre hesia gaingitu, gangadun hormak duen erlaitzetik metro batzuk aurrera egin, eta bat-batean, zuen ezkerretik behera egiten duen zidor malkartsua abiatzen da. Horixe hartu eta tentuz ibili, itzela baita amildegia! Ote, belar eta sasi artean, zidor lausoak zuzenean behera


egin gabe, ezker-eskuin dabil, erlaitzetik erlaitz jaitsiera errazenaren bila. Kontrabandistek sarri erabili ohi zuten ezkutuko portua da Erentzin. Egun ordea, arrantza eta urpekariek soilik erabiltzen dute. Alga biltzaileek erabili ohi zituzten hainbat eraikin ere antzeman daitezke ingurutuan.

Erentzingo zabalean dago “Fosilen hondartza”. Horko harriak maskor, pilota, baloi edo itsas-txakurrak izan daitezke; irudimenaren arabera

Behera iritsitakoan erreka-stoa zeharkatu eta itsasertzera hurbildu. Hurrengo zatian bidea zikin samar dagoenez, hobe duzue eraikinen ondotik pistan gora igo. Bideguru-

tzean gora jarraitu beharrean, ezker- rerra hartu eta berriro itsasertzera jaitsi. Hemendik aurrera erliebea asko leunduko bada ere, baditu oraindik Jaizkibelek txundituta utzi-ko zaituzten altxorak, Erentzingo zabala da horietako hurrengoa. “Fosilen hondartza” gisa ere ezagutzen da, bertako harriek, maskor, karakol, pilota, baloi, edo itsas txakurrak baitirudite bakoitzaren irudimenaren arabera. Hori bai, geologiak eskaintzen dizkigun bitxikeria sinesgaitz horiek denak itsasbehera denean soilik daude ikusgai. Hareharrian disoluzioz sorturiko higadura forma bitxiak, albeoloak, ikusi ahal dira, hortik gertu, ibilbidearen lehen erdian sarri topatu ditugun horiek. Itsasertzetik aurrera segituz, bat-batean itsasora





Erentzingo portuko bidea ikus daiteke lehen irudi honetan; fosilen hondartza hurrengoan eta Erentzingo zabaleko bistak azkenik.

zabaltzen den leize-aho erraldoia agertuko zaizue. Ikusgarria ezta? Ganga gainetik igaro eta aurrera jo.

Bioznarretik Artzuko portura

Hortik aurrera bide errazagoa duzue, ibilbide benetan atsegina. Itsaslabarrak ez dira lehen bezain altuak, bai ordea bertikalak. Bioznar igaroko duzue lehenik, inguruotan Kantauri itsasoan gehien barneratzen den lurmuturra, Xixurko kala zeharkatuko duzue jarraian eta Limaputzukoa ondoren.

Marlako belardi zabal eta leunetara iritsiko zarete eta horiek zeharkatzen dituen bidexka garbi eta erabilia jarraitzea besterik ez duzue. Hainbat erre-kasto eta ur putzu igarota, eskuinera biratu eta begi aurrean agertuko zaizue Artzuko portua. Amildegi ertzetik egiten du aurrera zidorrak Artzuko hondartzara iristeko, non itsaso zabaletik babestua egonik, enbata bortitzenetan ere olatuak bare iristen diren.

Uda sasoiaren arrantzale nahiz bainuzale ugari elkartu ohiko da bertan,

Guadalupeko ermitatik behera, Artzuko baserritik pasatuz, autoz ia bertaraino iritsi daiteke eta. Hondartzatik gertu Artzuko errota zahararren hondakinak ikus zitezkeen, baina 2005. urtean Hondarribiko Udalak horiek eraistea erabaki zuen.

Higer lurmuturrera

Itsasertzeko ibilbidearen azken zati honetan Hondarribiko herriko etxeak atondutako hainbat ibilbidearen argibide panel eta kolore ezber-

Gotorleku eta gerrarako eraikuntzak Jaizkibelen

Pirinio mendikateko tontorrak leundu egiten dira Bizkaiko golkora hurbildu ahala. Frantzia aldetik zetozen gudarosteak Espainiara igarotzeko inguru hori erabili ez zezaten garrantzia handiko gotorlekuak eraiki izan dira eremu horretan; Hondarribia eta Donostia hiri gotortuak esaterako. Bi herrien arteko kostaldean ere erruz topatuko ditugu eraikuntza militarrek; Uliamendin, Monpaseko Gipuzkoako Diputazioaren batera; Pasaia gainean, Donostia liberala etsai karlistengandik babesteko Almirantearen gotorlekua; Pasaia itsasartean, 1805ean suntsitu eta egun desagertua den Pasaia dorreaz gain, Santa Isabel gaztelua, portu sarrera babestea zuten xede biak. Azken horren gainean, Arrokaundieta muinoan, Lord John Hay gotorlekua dago. Britainiar militarrek eraiki zuten —beraietako baten izena du— 1838an, eta Pasaia herria babestea zuen helburu. Egun, atsedeneku moduan egokituta dago. Jaizkibel tontorrean ere San Enrike gotorlekuaren aztarnak erraz atzeman daitezke. Aipatu azken biak liberalen esku zeuden gotorrak izan ziren azken karlistaldian (1872-1876). Ekialderago dago hobekien mantendu den gotorlekua, Guadalupekoa. Karlistaldien ondoren eraiki zuten eta Pirinioen defentsan Oartzungo lubaki eremua osatzen zuen, San Markos eta Txoritokitarekin batera. Amaitzeko Higer lurmuturretik gertu San Telmo gaztelua dago, 1598an eraikia piraten aurka borroka egitearren.

Jaizkibelgo dorreak

Kantauri itsasoaren parez pare doan gandar luzanga horretan, neurri txikiko eta oinplano hexagonaleko bost dorre nabarmentzen dira. Bi gailurretik ekialdera, Hondarribiraino lurretan: Erramutz eta Santa Barbara; eta beste hiru mendebaldera, Lezo eta Pasaia arteko mugalerroan, lehen, bigarren eta hirugarren dorre gisa ezagunak. Sei omen ziren baina, hasiera batean karlistaldietan altxa zituztenak. 1874an eraiki zituztela esaten da eta kroniken zaintza postuekin lotzen dituzte, bertatik Pasaia eta Txingudi bitarteko eskualdea ondo baino hobeto menperatzen baita. Alabaina, telegrafo bidezko komunikazio sistemarentzako postuak izan zirela dioenik ere bada. Edozein zela ere egitekoa, hori dira dorreek, eta Hondarribiatik Pasaia nahiz Lezora doan tontorreko bidea egiten duenak ikusgai izango ditu. Bide hori bera erabiltzen du Done Jakue bideko Itsasertzeko ibilbideak.

50eko hamarkadatik 90eko hasierara Jaizkibelgo itsas isurialdeko zati handi bat inguru militarra zen. Inularreta baserria eta tontorra bitarteko eremuan egin zituzten Espainiako ejertzitoko soldadu belaunaldi askok beren gerra praktikak. Usu egiten zituzten tiro praktikak eta bestelako maniobrak. Horretarako errepidea ixten zuten maiz. Garai hartako lekuko dira desjabetu zituzten baserri mordoa eta Erentzin mendate gainean dagoen Ixiruko kuartel zaharra.



dinetako arrastoak aurkituko dituzue. Ez kasurik egin, udalak argitaratutako liburuxka eduki ezean oso nahasgarriak baitira. Pistan gora ekin behar diozue bideari, bidegurutze batera iritsi arte. Hor, Artzu eta Guadalupera igo beharrean, ezkerrera doan pistari heldu eta pinudi zein baso artean Higer lurmuturreraino iritsiko zarete, ordu-bete eskasean. Itsasertz eder horretako hainbat bazter eta paisaia ezberdin igaro ondoren, luze eta aspergarri suertatu ahal zaizue azken zatia, itsasertzetik urrundu eta lehen bezala itsasoa dastatzerik ez baituzue izango. Bide zahar bat ba omen zegoen itsasertzetik zihona, baina pista eraikitzean baztertu eta galdu egin bide zen.

Helmugara iritsi baino lehen, bat-batean eraikuntza handi bat agertuko zaizue begi aurrean, araztegia duzue. Azalpen panela duzue hor ikusgai. Eskuinetik inguratu eta Higerren zarete. Kanpina, tabernak, auto andana... zibilizazioan zarete berriro. Metro gutxi batzuk aurrerago duzue itsasargia eta aldamenen Amuitz uhartetxo edo haitza. Hondarribiraino erraza duzue, Asturiaga badia, portua, hondartza eta kirol portua igaro eta bertan zarete. Erdi Aroko hirigune interesgari honek ere merezi du bisita, arrantzaileen Marina auzoa, alde zahar paregabea, Arma Plaza, harresia, Karlos Varen gaztelua... ■

Jaizkibel arriskuan

Nahiz eta administrazioak ingurumenaren gainean inoiz baino kontzientziatuago eta sentsibilizatuago egon, mende honetan gure lurraldeak pairatzen duen eta sufritu beharko duen txikizioa inoizko basatiena da. Gaur baina, txikizio hori ezkutuan egiten da, ingurumen sailaren oniritziarekin, behar beste txosten idatzi ondoren. Ez dugu ezer ere ikasi aurreko mendean egindako basakeriez, oker larriagoak egitera goaz. Gizakia omen da akats bera behin eta berriz egiten duen animalia bakarra. Pasaiaiko kanpoko kaiari buruz ari gara, baina aipatu genitzake autobideak, abiadura handiko tren, zentral eolikoak, harrobi

berriak... Jaizkibia elkarte sortu berriak, mendebaldeko itsaslaba-rraren parean eraiki nahi du Pasaia-ko portu berria. Azken txostenak itsaslabbarrari itsatsitako azpiegiturak ingurumenen kalte handiak eragingo lizkiokeela onartzen du, eta horren orde, uharte kaia egitea proposatu. Alabaina, eragingo lituzkeen kalte ukaezinak albora utzita, txostena ideia okerretik abiatzen da: kanpoko kaia beharrezkoa dela. Benetan behar al dugu horrelako superporturik? Gipuzkoako errepideek jasango al dute? Ez al ditugu gertu Baionako eta Bilboko portuak? Pasaialdea biziberritzeko ez al dago beste modurik?



Bittiria kalea 24
31770 LESAKA
Tel.: 948 637 53
www.atxaspi.com